



**Iratxe Ugalde eta Oscar Carril,
Teknotag:
“EAEEn gure proiekturako
merkatua dago”**


Iratxe Ugalde (30 urte) eta Oscar Carrilek (31 urte) Donostiako EHU-ko Informatika fakultatean ikasi zuten eta ondoren, txartel-adimenduak egiten zituzten enpresa batean aritu ziren elkarrekin. Duela urtebete langabezian geratu zirenean, Teknotag euren enpresa sortzea erabaki zuten.

-Zer da Teknotag egitas-moa?

Kongresu, azoka eta antzeko ekitaldietarako sarbide kontrolerako eta presentzia-denboraren kontrolerako zerbitzua eskaintzen duen enpresa. Hau da, kongresuetara sartzeko akreditazio txartelak egiten ditugu. Txartel horiek tag-a dute eta horren bitartez, nor sartu den eta bertan zenbat denbora egin duen kontrola daiteke, sarreran jartzen dugun PDA-ren (ordenagailu txiki bat) bitartez. Momentuz horrela egiten ari gara, baina aurrerantzean, PDA-ren ordez, sarbiderako arkuak erabiltzeko asmoa dugu. Arku horien bitartez, jendea ez da sarreran geratu behar, pasatu eta txartelaren tag-aren bitartez zuzenean pertsona identifikatzen da eta konektatua dagoen ordenagailura doaz bere datuak. Lehen paperen bitartez egiten zen guztia, orain informatizatuta dago, prozesua arindu eta erraztu egiten du sistema horrek.

-Beraz, izenak badu izanarekin zerikusia...

Bai, Teknotag-en esanahia honako hau da: "Tag"-etarako Teknologia. "Tag"-a txartel adimenduak daraman txip-a da. Txip hori txartelei edo beste edozerri jar da kioke, erloju bati esaterako. Hala ere, jendeak gehiago



ezagutzen ditu txartelak, baina txartel horiek berez, txipa daramaten tag-ak dira, nahiz eta jendeak txartel adimendu moduan ezaugu. ONA txartelak ere "Tag"-a darama. Azken boladan modan jarri dira horrelakoak, etorkizunean NAN-ak ere, tag-a eramango duela entzuten da.

-Aipatu zerbitzuaz gain, besterik eskaintzen duzue?

Sarrailagintza elektronikoa ere eskaintzen ari gara, atek elektronikoki irekitzeko sistema ezberdinak hain zuzen. Hau da, sistema hori

duten lekuetan sartzeko baimena izanez gero, txartel adimenduarekin sartzeko aukera dago. Sistema horrek zenbait abantaila ditu. Adibidez, 5 giltza ezberdin izan beharrean, tarjeta bakararekin ireki ahal dira ate ezberdinak. Bestalde, tarjeta horren bitartez, zenbait lekutara sartzeko ordutegia kontrola daiteke.

-Nola eman zenituzten lehengo urratsak Teknotag sortzeko?

Iazko urrian Ermuko Udalera joan ginen informazioa eskatzera eta momentu hartan zeuden ekintzaileen jardunaldietara gonbidatu gintuzten, gu ere ekintzaileak ginelako. Jardunaldi horietan Carmelo Oiarzabal ezaugu genuen. Carmelo, Uni Eibar-Ermuko irakaslea da, Finantzen administrazioa

eta zuzendaritza modulan ematen ditu klaseak eta bera izan da gure gidari nagusia. Berak lagundu digu enpresaren bideragarritasun plana egiten, diru-laguntzei buruzko informazioa eman digu eta lan handia eginez, gure proiektua martxan jarri dugu. Gogorra da, baina merezi du. Ideia eta gogoia izanez gero, aurrera egitera animatzen dugu jendea.

-Horretarako ikastaroren bat egin behar izan duzue?

Bai, Carmelok gure proiektua ezagutu zuenean eta zertan aritzen zen azaldu ostean, "Urratsbat" programan parte hartzera gonbidatu gintuen. Programa hori Tknikak (Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroak) kudeatzen du. "Urratsbat" enpresa berriak sortzeko proiektua da eta

**"Ideia eta gogoia izanez gero,
aurrera egitera animatzen
dugu jendea"**

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
estankoa

torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa


PUB YOMY
**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

programa horren bitartez, bideragarritasun planerako, formazioa jasotzeko, bidaie-tarako eta web-orrialdea egiteko diru-laguntza jaso genuen.

- Zenbat denbora egon zarete formazioa jasotzen?

Urtebete egon ginen formazioa jasotzen. Formazioa norberaren enpresa sortzeko tutoretza da. Enpresa sortu arte, bideragarritasun proiektua egiteko aholkularitza jaso genuen, burokrazia kontuak nola egiten diren ikasi... Enpresa sortu ondoren, beste urte betez jarraipena egiteko tutoretza jasotzen ari gara.

-Zeintzuk dira zuen bezero potentzialak?

Alde batetik, kongresuak eta azokak antolatzen dituzten enpresak eta bestetik, sarrailagintza elektronikoa jarri nahi duten instituzio, enpresa eta bulego eraikinak besteak beste. Horrez

gain, badira hotel batzuk, "Formula 1" deitutakoak, sarrailagintza elektronikoa erabiltzen dutenak. Aurretik erosten den txartel baten bitartez, hoteleko gela ireki ahal da eta bere iraungitze-data du. Horri esker kostuak murrizten dira, ez baita harrrera-lekurik behar.

-Egin duzue lanen bat?

Bai, urriaren bukaeran Bilboko Euskalduna Jauregian, hiru egun iraun zuen Podologia Kongresu Nazionalan egon ginen. Bertan, akreditazio txartelak egin eta sarbide kontrolerako eta presentzia-denboraren kontrolerako zerbitzua eskaini genuen. Egia esan, emaitza oso ona izan da, Bilboko kongresu horretan beste lan batzuk egiteko eskaerak egin dizkigute-eta.

-Orain Izarran zaudete, noiz arte?

Alokairu sozialeko egoitza da oraingoa eta 3 urtetan egon gaitezke hemen. Epe

"Daukaguna hobetzea eta negozio lerro berriak eraikitzea da helburua"

horretan gure enpresa bideragarria den ala ez ikusiko dugu. Alokairu sozialaren bitartez, lehenengo urtean alokairuaren ehuneko portzentaje bat ordaintzen da, bigarren urtean prezioa igo egiten da eta hirugarren urtean merkatu prezioetik geratu dagoen alokairua ordaintzen da. Enpresa bideragarria bada, beste toki batera joango gara eta horixe da gure asmoa.

-Zuen zerbitzua nahiko berritzailea omen da?

Ez gara bakarrak, baina Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzua hau eskaintzen duten enpresa gutxi daude, Madrilan eta Bartzelonan gehiago daude. Hemen mer-


katua bazegoela ikusi genuen eta esperientzia apur bat geneukanez, aurrera egitea erabaki genuen. Bestalde, sarrailagintza duela 20 urte hasi zen banda magnetikoarekin funtzionatzen, baina gutxi erabiltzen da, ustiatzeko dagoen arloa dela uste dugu.

-Zeintzuk dira etorkizunari begira Teknotag-ek dituen helburu eta aukeak?

Daukaguna hobetzea eta negozio lerro berriak eraikitzea izango litzateke hemendik aurrerako helburua. Izan ere, orain daukagun zerbitzua oso oinarritzakoa da. Baliogarria da kongresu eta azoka ertainetan aplikatzeko, baina azoka handietan erabiltzeko sistema garatzea nahiko genuke.

Era berean, haztea eta enplegua sortzeko aukera ikusten dugu aurrerantzean. Hau da, gure proiektu hau, laupabost langile dituen enpresa bihurtzea nahiko genuke, beharrezkoa baita. Gure proiektua zenbat eta konplexuagoa bihurtu, jende gehiagoren beharra izango dugulako. Momentuz, gure lan esparrua Bilbo, Gasteiz eta Donostian dugu, baina etorkizunean Cantabria eta Nafarroara zabaltzeko asmoa dugu.

Alazne Aiestaran



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak,
bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA